



## Kultur jarduerak nagusi, Antiguako sanjoanetan

Antiguan argi dute urtea ondo hastea bezain garrantzitsua dela ikasturtea ondo amaitzea, eta jai giroan bada, are hobeto. Horretarako, kultur jardueraz jositako bi asteburu prestatu dituzte. Berritasunak berritasun, dantza, antzerkia, erraldoiak eta jatekoa ez dira faltatuko.

T\_Olatz Balda Sagarzazu

**A**ntiguan, festa giroa maiz izaten dela jakina da Donostian. Auzokideek ondo baino hobeto dakite jaienez gozaten, eta hilabete bat baino gehiago dute horretarako: urtarrilean,

San Sebastian egunaren bueltan izaten dituzte auzoko jaiak, eta ekainean, berriaz, San Joan bezperaren baitan antolatzen dute festetako bigarren buelta. «Urtarrilean gehiena *juerga* izaten da, eta orain-

goak kulturalagoak dira», zehaztu du Ane Larequik, Antiguotarrak Dantza Taldeko kideak.

Euskal dantza taldearekin elkarlanean aritu dira Antiguotarrak elkartekoak antolakuntzan eta, ohi moduan, eragile bat baino gehiago batu zaizkie bidean: «Jendea ideia berriekin eta gauzak antolatu nahian etortzen zaigu. Mugimendua dago, askotariko jendeak parte hartzen duelako», azaldu du Larequik.

Prestaketa lanak otsailean abiatuta, jarduera guztiak primeran ondu zituzten Aste Santua iristerako. Nolanahi ere, kontrolpean ez duten faktore batek urduritu ditu antolatzaileak azken txanpan: «Orain, frontoia falta zaigu», adierazi du Larequik, festetarako egun batzuen fatan. Pilotalekuko lanak duela aste batzuk ziren amaitzekoak, baina, ohi moduan, irekiera eguna atzerapenetan kateatu da.

### Dantza eguna

Bi asteburutan banatutako jaiak gaur bertan abiatuko dituzte, eta festa giroak luze joko du hilaren 25era bitarte. Ohi bezala, Street Boulder eskalada lehiaketak emango du festen lehen mokaduez dasatzeko aukera, baina biharko Dantza Egunak eskainiko du jaien plater nagusia: «Urte osoa daramagu hurrekin emaldia prestatzen eta berezia da jarduera asko daudelako», adierazi du Larequik.

Askotariko jarduerekin ehundutako Dantza Egunak eskaintza zabal bati emango dio bide, eta hurrengo egunetan festa giroak ez du etenik izango.

Kantu bazkaria, bertso afaria, eta Sa-

**NAGOi**  
SUPERMERKATUA



**Ondo pasa jaietan!**

Sukia kalea, 1 · Antigua · 943-31 51 27 · Donostia

rek antolatutako Ez Donk 13 Antiguotarrak 14 ekitaldia prestatu dituzte, beste behin, eta beraz, aurten ere aldarrikape-nez beteriko abesti eta mezuak ez dira faltatuko: «Berritasun gisa, Ez Donk 13 bazkari izatetik berriz ere afari izatera pasatu da».

Haurrentzako futbol topaketak, haurren diskofesta eta zezensuzkoa izango dituzte lehen aldiz

Kantuan eta dantzan aritzeaz gain, elastikoak izerditzeko parada ere izango dute jaietan. Hamarkada batez antolatu duten areto futbol txapelketa izango dute, beste behin ere frontoian, baina, aurten, berritasun gisa, 9 eta 14 urte bitartekoentzako futbol topaketa ere antolatuko dute Bentaberriko pistetan.

#### Diskofesta eta zezensuzkoa aurrenekoz

Bigarren astebururako, berriz, berrikuntza pare batekin datoz antiguotarrak. Aurten, urteroko tradizioa apurtuta, ez dute Pirritx, Porrotx eta Marimototsen emanaldirik izango. «Penatuta» dauden arren, iragarri dute pailazoan faltan, haurrek diskofesta izango dutela frontoian, hilaren 20an.

San Juan bezperan, berriz, jarduera bat gehitzeko aukera izango dutela iragarri du Larequik: «San Joan suaren ondoren izan ohi dugun erromeria bukatzerakoan, zezensuzkoa izango dugu aurrenekoz».

## Egitaraua

### EKAINAK 14, OSTIRALA

**19:00etan, Mikel Laboa plazan:**  
Street Boulder txapelketa. Izen-ematea 18:00-19:00 bitartean plazan bertan.

### EKAINAK 15, LARUNBATA

**Sardina jatea eta taberna egun guztian zehar Mikel Laboa plazan.**

**10:00etan:**  
Diana auzoko txistulari eta dultzaineroekin.

**11:30ean, Matian zehar:**  
Antiguotarrak Euskal Dantza taldearekin kalejira.

**13:00etan, Gaskonia plazan:**  
Trapu Zaharraren eskutik, antzerkia.

**13:00etan, frontoian:**  
Euskal dantzen emanaldia.

**16:30ean, auzotik zehar:**  
Loretope konpartsaren eskutik Antiguako erraldoi eta buruhandien kalejira, gaiteroek lagunduta.



### EKAINAK 16, IGANDEA

**Gazte eguna.**

**10:00etan, Benta Berriko pistetan:**  
Futbol topaketa 9-14 urte bitarteko haurrentzat.

**10:00etan, frontoian:**  
Futbito txapelketa.

**14:00etan, frontoian:**  
Bazkaria Txantxarreka gaztetxeak antolatuta.

**14:30ean, Txirain elkartearen:**  
Kantu bazkaria. Izen-ematea: txirain@txirain.eus.

**16:30ean, auzotik zehar:**  
Sari banaketa eta Bingo musikatua.

**17:30ean, frontoian:**  
Kontzertuak eta DJak.

## Errehabilitazioak

- Fatxadan isolamenduak
- Teilatu konponketak
- Zaharbertzeak
- Teilatuak



GIPUZKOAN, EUSKAL HERRIAN ETA  
INGURUKO PROBINTZIETAN.

jobilan.eus 620706936

OLIVOS  
TABERNA · JATETXEA

Josetxo  
Irurtia Balerdi

Gora  
San Joan  
jaiak!

Erregezaintza 4,  
DONOSTIA  
Tel.: 943-21 49 89



# Antiguako sanjoanak

## EKAINAK 20, OSTEGUNA

**17:00etan, frontoian:**  
Ttiki-Ttaka irratia diskofesta  
umeentzat.

## EKAINAK 21, OSTIRALA

**18:00etan:**  
Flashmood espektakulua  
Toki Atsegiña eta Holidantza  
taldeen eskutik.

**19:00etan, auzoan zehar:**  
Trikipoteoa Alfontso XIII plazatik  
abiatuta.

**21:00etan, Antiguotarrak elkartean:**  
Bertso afaria, Joanes eta  
Xabat Illarregiren eskutik.



**PLATERO**  
taberna  
**Gora Antigua!**  
Jaietan nahi zaituztegu!

**Triku Harri**  
taberna  
Matia Kalea 35, Antigua  
[www.trikuharrijatetxea.com](http://www.trikuharrijatetxea.com)

**basmodec**

**Gora Antiguako sanjoanak!**

**ZURE PINTURA DENDA**

**BENTA BERRI**  
Jose Goikoa Z/G  
943 15 55 79

**GROS**  
Secundino Esnaola, 19  
943 28 26 11

**AMARA**  
Eustasio Amilibia, 11  
943 45 67 04

**BEASAIN**  
Oriamendi, 21  
943 88 08 63

**HERNANI**  
Akarregi Poligonoa, Pab.3A  
943 52 16 50



# Antiguako sanjoanak



## EKAINAK 23, IGANDEA

**19:00etan:**

Loretope konpartsaren eskutik Antiguako erraldoi eta buruhandien kalejira.

**22:00etan, Gaskonia plazan:**

San Juan Sua, kantujira, soka dantza herrikoa eta lore sorten banaketa. Oharra: debekatuta egongo da papera botatzea.

**22:30ean, Gaskonia plazan:**

Erromeria. Jarraian, zezensuzkoa.

## EKAINAK 22, LARUNBATA

**16:00-18:00, Alfonso XIII plazan:**

Haurtxoko eta Gaztelekua.

**20:30ean, frontoian:**

Herri afaria auzoko elkartean laguntzarekin.

**22:30ean, frontoian:**

Ez Donk 13 Antiguotarrok 14 ekitaldia.

**00:00etan, frontoian:**

Berriz Tijuana kontzertua. Jarraian, Bakiyaz Zerek eta ZKN Brothers DJak.

## EKAINAK 25, ASTEARTEA

**19:30ean, Imanol Larzabal aretoan:**

Luberri Abesbatza, San Juanetan ere kantari.

Ondo pasa  
Antiguako  
sanjoanetan!



HAUR ETA LEHEN HEZKUNTZA (2-12 URTE)  
JARRAIPENA ANTIGUA-LUBERRI BHI (12-18 URTE)  
ERREGEZAINZA, 12 - 943-89 91 84  
mail: 012368aa@hezkuntza.net  
www.jakintzaikastola.hezkuntza.net

**JAKINTZA**  
ikastola



**Atlas** fisioterapia



Heriz, 10 beheka (Antigua)  
943-3114 00 / info@atlasfisio.eus  
www.atlasfisio.eus

**Gora Antiguako  
sanjoanak!**



**LEGAZPI 6**  
EUSKALTEGIA

**Gora Antiguako  
sanjoanak!**

Euskaraz jardun eta lantzeko talde ezberdinak ditugu:  
erretiratuak, alfabetatzea, titulu homologatuak (A1, A2, B1, B2, C1, C2), autoikaskuntza, mintzamena...



Guridi Maisua, Z/G, Antigua · Kanpandegi, 1, Parte Zaharra



943-2199 07



legazpi6@legazpi6.eus